

Euskara sektorea EAEko Barne Produktu Gordinaren %4,2 da

BPGAREN %4,2 osatzen du euskarak; enpleguen %6,3 eta Balio Erantsi Gordinaren %4,5. Lehenengo aldia da euskararen munduaren pisu ekonomikoa neurtzeko ikerketa egiten dela. Europan ere ez dago hala-korik.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bideratu du euskararen munduaren pisu ekonomikoa neurtzeko ikerketa. HPSren ustez, ikerketak garbi utzi du euskara euskal ekonomiaren jarduera-sektore bat gehiago dela. Enpleguari begiratzen badiogu, 56.142 langile ari dira euskararen sektorean. 42.724 lanpostu dira zuzenekoak, 3.748 zeharkakoak eta 9.670 indutituak.

Barne Produktu Gordinaren %4,2 biltzen du eta eurotan emanda, 2.800 milioi. Balio Erantsiaren Gaineko Zergari (BEZ) dagokionez, 156.933 euro biltzen dira zerga bidez eta diru-laguntzetan sektoreak 107.392 euro jasotzen ditu. Beraz, 49.541 euroko saldo positiboa egiten du.

Ikerketak EAEko Barne Produktu Gordinan beste sektore batzuek duten eragina ere jasotzen du, euskara sektorearekin alderaketak egin ahal izateko. Ehuneko handienetik txikienera ondokoa da zerrenda: osasuna %8,8; turismoa %5,8; hezkuntza %5,5; euskara %4,2; I+G+B %2,1.

Patxi Baztarrika HPSko sailburuordeak hizkuntza gutxiagotuen balio ekonomikoaz dauden aurreiritziak aipatu zituen ikerketaren aurkezpenean eta ondoko gogoeta egin zuen: “Euskara, adibidez, Interneten nabigatzeko erabiltzen diren hizkuntzen artean 44.a da, Twitterren erabiltzen diren 33 hizkuntzen artean dago, Wikipedian 34.a da eta Europar Batasuneko 10 Estatu hizkuntzatan baino artikulua gehiago daude euskaraz hor, Wikipedian. Baina, hala ere, kuestionatu egiten da bere balio ekonomikoa. Balio ekonomikoa duten hizkuntza efika-

EUSKARA %4,2

OSASUNA %8,8

HEZKUNTZA %5,5

TURISMOA %5,8

I+G+B %2,1

zen eta baliagarriak ez diren hizkuntzen –kultur ondare huts diren hizkuntzen– arteko bereizketaren aurrean gaude. Horregatik –eta hau gauza berria da gurean– ikerketa egin dugu euskarak Barne Produktu Gordinan (BPG), Balio Erantsi Gordinan eta enpleguan duen eragin ekonomikoa buruz. Ikerketaren emaitzak agerian jartzen du, argi eta garbi, euskarak gure gizartearen sare ekonomikoan duen garrantzia, eta lagungarria da, euskararen eragingarritasun eta baliagarritasun ekonomikoa zalantzan jartzen –edo ukatzen– duen aurreiritzia desintegratzeko”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Banpiro kapitalistek nazio subiranotasuna bahituta dute

MUNDU OSOAN ARI DIRA TPP edo Pazifikoko arteko Kooperazio Ekonomikorako Itunaren kontra mobilizatzen, baita Europan eta Euskal Herrian ere. Itun hori ezkutuan egiten ari dira AEBen eta Pazifikoko beste hamaika herrialderen artean –Txiletik Zeelanda Berriraino–, eta herrialde bakoitzak onartu beharko du. Munduko biztanleriaren %11 hartuko lukeen merkatu bakarria sortuko litzateke, munduko BPGaren %40 izango luke, merkataritza globalaren %25 eta atzerriko inbertsio zuzenaren %32. Ituna onartzen bada, merkaturak –multinazionalak eta korporazio handiak– herrien subiranotasuna bahitzea lortu duten seinale izango da. Gobernuak merkaturak kudeatzailerik ofizial baino ez dira izango. Ituna aurrera ateraz gero, Europak bide bera urra dezake, AEBekin TTIPa (Europa eta AEBren Arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenaren ingelesezko akronimoa) ari baita negoziatzen.

Herrialdeen etorkizuna jokoan da. Nork aginduko du, herritarrek aukeratutako pertsonak ala banpiro

kapitalistek? Adibide batzuk jarriko ditugu. Inolako muga legalik gabe deslokalizatzeak inposatu ditzakete, enpresak itxi eta enplegua ezabatu. Herrialde batek gai toxikoak edo jangai transgenikoen etiketak debekatzeko baditu eta ingurumen araudia zorrozten badu, TPPak enpresei boterea emango die gobernuak ezkutu tribunal baten aurrean salatzeko, epaileak merkatuei lotuta daudela jakinik ere. Gobernuak epaiketa hori galtzen badu, zergadunek ordaindu beharko diete enpresei “etekineta” galdutako milaka milioi euro. TPPren kontra farmazia-industria erraldoiak bere monopolioa hainbestearaino heda dezake, kantzerretik edota hiesetik salbatzeko oinarritzko botiketara sarbidea mugaturik izango dutela gaixoei.

TPPrekin kontra mobilizatu eta borrokatzea funtsezkoa da, Europak haren lortatza segi dezala saihesteko, ez dezagun gure nazio subiranotasuna banpiro kapitalista horien esku utzi.

Juan Mari Arregi